

# BAGABILTZA

LHK-CRLko euskara-planaren buletina. 5. zk. 2022ko otsaila.



## Euskaraz lan egiteko Interneteko baliabideak



Euskaraz lan egiteko Interneten dauden baliabideei buruzko formakuntza-saioa egin zen otsailaren 17an Lan Harremanen Kontseiluko Bilboko egoitzan. Maite Unzalu Elhuyarreko aholkulariak eta Josu Arroyo normalkuntza-teknikariak gidatu zuten saioa, eta Kontseiluko

hamabi langilek hartu zuten parte; jardun biko saioa izan zen (aurrez aurrekoa, eta online).

Saioan aipatu ziren, besteak beste, interneten eskura dauden hiztegiak, zuzentzaile ortografiko-lexikalak, itzultzaile neuronalak, eskuliburuak, estilo-liburuak...

Eta azken helburua Interneteko baliabide horiek erabiltzen ikastea denez, ariketa praktiko batzuk proposatu zitzaizkien partaideei, nor bere aldetik egiteko.

## Tomás Arrieta

BAGABILTZA berri bat atera da. Bosgarrena. Horrek esan nahi du euskarazko normalkuntzaren bidean jarraitzen dugula. Denok elkarrekin, aurrera goaz. Euskara, gero eta gehiago, gure artean dago. Ni, LHKren ardura-dun naizen aldetik, oso harro nago hori, pixkanaka-pixkanaka, lortzen ari garelako. Orain dela bi edo hiru urte hau erronka bat zen; gaur egun, ordea, errealitate bat da, nahiz eta bide luzea daukagun aurretik. Alde horretatik, zorionak eta eskerrik asko denoi.

Hori bai, espero dut aurten ez dugula bakarrik lana serio egingo. Beste ekimen dibertigarri batzuk ere agertu behar dira bidean; argazki-lehiaketa, edo antzeko besteren bat. Besterik gabe, segi ikasten eta gozatu.

## AHOTSAK. *Bediako eta Arratiako gazteak Bilbora joaten ziren beharrera*

“-Arratia izanda, zuek hartu-emona eta zeifnekin euki dozue gehiau, Arratiako Igorrekin-eta, edo gehiau Galdakaokin eta Amorebietakin-eta?

-Guk Bilborantza gehiau danok e! Tranbie be bertan paretan [ginduezan], tranbien beti Bilbora. Neu be Bilbon beharren ibili nitzen ta mutikorik.

-Hamengo jende asko-eta beharrean, Galdakao, Bilbo...

-Danak Baskonian enjeneral, ta Zuhatzun /Zugutzun/ hemen Dinamiten, ta Bilbon muellean.

-Dinamiten, hor Galdakaon?

-Galdakon. Ta gero ba Baskonia. Horixe. Ta gero horra bo bai muellera asko, Arratietik tranbiek beterik etorten ziran eta Bilbora arte. Bilbon ba badiñotsut, muellera jente asko joaten zan e?

-Muellera?

- Bai-bai, beharren, Arratietik e? Hemengo jentea enjeneral Baskoniara, eta Firestone. Firestone geroao, baie lehenao Baskoniara.”

**Egilea(k):** Nerea Goiria Mendiola (Badihardugu Euskara Elkarte)

**Elkarrizketa osoa eta bideoaren lotura:**